

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko maiatzaren 3a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Burgi • Igandean ospatuko da Almadien XI. Eguna, Ezka ibaiaren ertzean • 3

Ufestuek musika taldea • «Baztani bizia eman nahi diogu, hemen ez baitago beste talderik» • 7

Txantreako kirolaren urrezko ezteiak

1952. urteko abuztuaren 7an sortu zen Txantreako Kirol Kultur Elkarteak. Futbol zelai baten kariatara sortu zen aurreneko futbol taldea, baina denborak aitzina egin ahala bertze kirolerara zabandu zen eskaintza: atletismoa, patinajea, eskubaloia, txirrindularitza... Amaigabeko kirol zerrenda dago egun Txantrean. 50 urteak di-da batean joan dira, baina aurtengoa emeki-emeki dastatuko dute Txantreako kirolzaleak; izan ere, urteurrena ospatzeko egitarau oparoa prestatu du elkarteak. Mendea betetzeko bide erdia egin du, eta aurrerantzean ibilbidea errazagoa izanen delakoan daude denak.

Halabiz!



Oi!agarocken atarian

Musika jaialdiaren IV. ekitaldia ospatuko da bihar, Allin ibarreko Artabia herrixkan

O'funkillo, Koma, Alcohol Jazz, Cuerno de Chivo eta Makuru taldeak arituko dira bihar

Oi!agarock 2002 jaialdian. Iluntzeko 20:00etatik aitzina musikaz blaitzeko aukera Artabian.

DENA PREST DUTE ARTABIAKO gazteek bihar 113 biztanleko herrixkan ehunka pertsona jasotzeko. Autoak uzteko aparkalekua, musika taldeentzako agertokia, ikusleentzako karpa estalia eta lo egiteko kanpalekua atondu dute. Egun berezia izango da

biharkoa Artabian; izan ere, Ega ibaiaren ertzean dagoen herri eder horrek eguneroko bizimodu lasaia ahaztu eta musikaren unibertsoan murgilduko da. Eraldaketa horren atzean izen bat dago: Oi!agarock. Eta atzean: Artabianeko Gaztetxeko kideak.

O'funkillo, Koma, Alcohol Jazz, Cuerno de Chivo eta Makuru taldeak arituko dira bihar-ko kontzertu erraldoian. 20:00etan abiatuko da kontzertua. Sarrerak 10 euroren truke lortu ahal dira.

Duela bost urte Estellerriko Allin ibarrean dagoen Artabianeko gazteak Oilagarock izeneko jaialdia antolatzen hasi ziren, bailarako gazteei kultur ekitaldiaren bat eskaintzearren. Izena Esparrago Rock jaialditik hartu zuten, musikaren jaialdi erraldoi horrekin parekatzea egokia zela pentsatu zuten, eta Espa-

rrago izendatu beharrean, oiaga, bertako landarea. «Izena bat-batean sortu zen, askorik pentsatu gabe», azaldu digu Endika Lasa gazteak.

Bost urteko lana

Musika jaialdia prestatzeko lanak ez dira errazak izaten. «Lan neketsua da oso dena prestatzea; taldeekin harremanetan jarri, herri txiki-txikia garelako kontatu eta baiezkoa jaso ondoren dator lan handiena: dena prestatu behar», erran du Endika Lasak. Herrian 20 gazte bizi dira astegunetan, baina asteburuan gehiago dira. «Lan egitea, hala ere, merezi du. Guk egun horretan asko disfrutatzen ez badugu ere, oso egun polita da», gaineratu du. Bost urte hauetan egindako lanaz baliatzen dira gazteak urtez urte gauzak hobeki egiteko. «Hala ere, zaila da oraindik ere. Azaroan hasten gara dena prestatzen, eta gero asteburu oro biltzen gara», erran du Lasak.

Ildo horretan, aurtun web orri bikaina prestatu dute: www.oigarock.com. Bertan, kontzertuan arituko diren taldeen berri emateaz gain, Artabian nola iritsi eta non lo egin argitzen dute. Halaber, argazkiak eta Oilagarocken historia paratu dute. Azkenik, elastikoak eta txiskeroak salgai jarri dituzte, diru sarrerak handitzeko xedearekin. «Pila bat saldu dugu dagoeneko», adierazi du Lasak. Bihar, Artabian, musikaren aitzakian, gaupasa egitea erraza izanen da.

→ Kristina Berasain



Koma musika taldea kriminal diskoaren aurkezpenean. ● JOXE LACALLE

Orreaga, 58 elkarteren bilgunea

ORREAGAK BERE IZAERA ALDATU berri du: oraintsu arte elkartea zen, baina hemendik aitzina fundazio izaera hartuko du. «Gure egitura hobeki zehazteko eta babes handiagoa jasotzeko egin dugu aldaketa», azaldu zuen Orreagako kide Nagore Goiburuk. Orreagak Nafarroako historia sustatu eta historia ondarea babestea du xede nagusia, eta dagoeneko 58 elkarre biltzen ditu bere baitan. Izaera aldaketa asmo berrien erakusgarri da, eta asmo horien artean hedatzea eta ezagutaraztea dago. Horretarako webgune bat zabaldu berri dute: www.orreaga.org. Orrialdeak lau atal ditu, eta bertan, fundazioaren xehetasunak emateaz gain, argitaratzen dituzten buletinak ere ageri dira. Orreaga osatzen duten elkarre guztien informazioa ere jasotzen dute, hala nola elkarre horiek guztiek antolatzen dituzten ekitaldien agenda.

Azkenik, Nafarroako Foru Hobekuntzaren 20. urteurrenaren kariatara, hainbat ekitaldi antolatu ditu Orreagak datozten hilabeteetarako. «Gure helburua ez da Foru Hobekuntza ospatzea, baizik eta zer izan zen eta zer ekarri zuen azaltzea», adierazi zuen Patxi Erdozainek.

Urriaren 17an mahai-inguruak egingen dute, eta aurrerago hitzaldiak emanen dituzte.

→ Kristina Berasain

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Garai txarrei aurre egin behar

Azkar ari dira gertatzen gauzak. Orain irakurgarri dena bizpahiru eguneko aurrerapenarekin idatzi behar izateak agian tokiz kanpo edo zaharregi utziko ditu ondorengo hitzak. Prebisioak onak ez direnean, gainera...

Frantsesak arestian hartu egin dira Le Penek izan duen gorakadarekin. Besteok ere bai, jakina. Horixe behar genuen tradizionalki faxismoaren kontrakoak izandako lur europarretan... Gurean ez dute Le Pen bezalakoek ezer irabazi behar, aspalditik baitaude ederki asko jarrita boterearen eserlekuetan. Zuhurgabeak engainatzeko, demokrataren mozorroa aurretik paratuta, baina hor daude. Le Penen Fronte Nazionalaren modukoak hemen soberan daude. Ongi integratuta dituzte «eskuin demokratikoan».

Hala ere, beren zereginetan nabarmentzen dira laster zer diren eta bere buruaren jabe egotekotan, itsua dago, ikusten ez dituen.

Antonio Perez Prados unibertsitate publikoko errektoreak behin eta berriz, euskara, gure kultura, ikasle, irakasle eta langileen kontra egiten dituenentzat beste deiturarik bururatzen al zaizue? Niri baztertzaila, diskriminatzaila, agintekeriaren ondoriozko iruditzen zaizkit. Gure herrian traidore huts, inongo oihartzunik ez duen Cervantes institutuko zuzendaria laguntzera etorri zaio berriki, eta euskarazaleok amets gaiztoak ditugula, paranoiko, hau da, ero batzuk garelako esan du. Jakina! Beste mundu batean bizi da Juaristi gaixoa!!! Bizi dadila luze Madrilgo eskupekoekin, baina bizi dadila dagokion tokian, bere lagunekin, guregandik urrun.

Laguntza handiagoa etorri zaio gero Sesmako errektoreari. Sesmako herrian ez dira denak bera bezalakoak, ezta gutxiago ere, beharrik!!! UPNeko gobernuak euskararen bazterketa arautzea proposatuko dio laster lege-

biltzarrari. Horretarako osatu berri du foru lege proiektua. Laguna sailburuak mutur osoarekin adierazi du lege horrekin bakerako bidea ireki nahi duela unibertsitatean.

Burlatuko ikastola publikoan kalte larriak egin dituzte gaez ezezagunek. Zer izan da gaiztakeria hutsa eta arrunta? Gaztetxo erokko batzuen gau lana? Ez dut okerragorik pentsatu nahi baina... Larriegi litzateke...


Frantziaren hasiak dira etortzen zaien arriskuari aurre egiten. Bada gurean ere garaia faxismoa dagoen tokiatik uxatzeko. Berandu baino lehen lanean jar gaitezen. Hau denon lurra da!!! Zilegi dira gure eskubideak. Guk, guztiok dagokiguna eskatzen dugu. Ukapenak, debekuak eta zapalkuntzak areagotzen ari dira. Eta gu kokilduta egon behar gara? Ez al gara gauza erantzun bateratu eta efektiboa emateko?

Burgi ●

Almadien zurrunbiloan

Igandean ospatuko den Almadiaren Egunean Estornes Lasa anaiak omenduko dituzte

Hil osteko Urrezko Almadia jasoko dute Estornes Lasa anaiak datorren igandean Burgin ospatuko den Almadiaren Egunaren XI. aldia. Almadien zurrunbiloan jaiegun polita izanen da Ezka ibaiaren ertzean.



Almadizainak, Ezka ibaitik jaisten, Burgin, Almadien Egunean.
● KRISTINA BERIAIN

BURGITIK GORA BOST KILOMETROTARA dagoen Olegiatik abiatuko dira aurten ere almadiak Ezka ibaian barrena, eta Erronkariko ibar estuan zehar, zubi erromatarra iragan arteko bidea eginen dute egurrezko txalupatxoek. Gainean, aker larruz egindako estalkia bizkarrean, galtza eta alkandora urdinak soinean eta abarkak oinetan, Erronkariko gizon zahar eta gazteak izanen dira ibaian zehar egurrezko txalupatxoetan.

XVI. mendean gerotik eta iragan mendeko 50eko hamarkada arte Erronkari ibarrean erabili izan den garraibidea lehengoratuko dute, berriro ere, bertakoek. Almadiak goizeko 11:00etan abiatuko dira, eta eguerdi aldera iritsiko dira Burgiko zubira. Han, ekitaldi aunitz izanen dira egun osoan egun honen XI. aldia ospatzeko xedearekin.

Jose, Mariano eta Bernardo Estornes Lasa

Almadizainen Elkartek antolatzen du urtez urte Almadiaren Eguna, eta jaiegunaren giroaz baliatuz, Urrezko Almadia eskaintzen du elkartek kultur edo kirol arloan nabarmendu den pertsonari. Xedea, oro har, ibarreko kultura eta, bereziki, almadien ohitura sustatu duten pertsonak saritzea eta omentzea da. Ildo horretan, aurten Izabako Jose, Mariano eta Bernardo Estornes Lasa anaiak jasoko dute Urrezko Almadia (hirurak hil ziren, baina aitormen hori egin nahi izan diete).

«Erabatekoa izan da hiru anaiak Erronkariko kulturara egin duten ekarpena. Etnografia izan da bere lanaren ardatzetako bat, eta, ildo horretan, goraiatzeko modukoa da almadiak ezagutzera emateko egin duten lana», azaldu du Fernando Hualde Almadizainen Elkarteko lagunak. «Hiru anaiak idatzi eta argitaraturiko liburu anitzetan beti egin izan dituzte almadiaren inguruko aipamen aunitz. Erraterako, xehetasun guztiakin idatzi zuten nolakoa zen almadizainen lana, bizimodua, hizkera, abestiak eta beste hainbat gauza», gaineratzen du Fernando Hualdek.

Arestian aipaturiko ekarpen horren lekuko paregabea da 1958. urtean Mariano Estornesek idatzitako *Oro del Ezka (Ezkako Urrea)* eleberria. Bertan, almadizainen ikerketa sakon bat egin zuen idazleak, Erronkariko ohiturak berritzairen.

Estornes Lasa anaietan gazteena, Bernardo, 1999. urteko abuztuan zendu zen, eta berarekin ikerlari eta idazle sendi baten azken kidea joan zen. Alta, hiru anaien lana betiko izanen da gure artean.

Erraterako, Bernardok idatzitako *Erronkariko uskararen hiztegia*.

Egitarau oparoa

Igandeko egitarau oparoa goizean goiz abiatuko da. Hain zuzen ere, goizeko 09:30ean harrera ekitaldia eginen da. 11:00etan, berriz, almadiak abiatuko dira Ezka ibaian barrena, Olegiatik. Eguerdiko 12:30ean, gutxi gorabehera, Burgiko zubira ailegatuko dira, eta jarraian, Erronkariko Jatarrizko Izendapeneko urteko

gazta aurkeztu eta dastatuko dute. 15:00etan, herri bazkaria izanen da frontoian, eta orduantxe emanen zaie Urrezko Almadia Estornes Lasa anaien ondorengoei.

Horretaz gain, egun osoan zabalik izanen da Almadiaren Museoa, Burgiko udaletxean, eta karriketari antzerki-kalejirak ibiliko dira giroa alaitzen. Eguna aproposa, beraz, ezin hobea, Burgira txango bat egiteko.

→ Kristina Berasain



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Likenak


Beti bezala, Takoneratik paseoan; udaberria, tulipanak, zozoak eta leku guztietatik harresiak. Eta harresietako harrietan, likenak. Gauza txikitxo horiek, basotxo mikroskopiko eder horiek. Fisikari-magoek esaldi harrigarriak botatzeko ohitura duten legez, orain ere guk esan genezake (makilatxo magikoa eskuan): «Likenak ez dira existitzen, kontzeptu bat besterik ez dira». Eta hein batean, egia da, zeren likenak berez ez dira gauza bakar bat, bi gauzaren arteko sinbiosia baizik. Alga eta onddo batek osatutako harreman sinbiotikoa da likena. Fisikari-magoek gu geu gauza askoren arteko harreman batzuk besterik ez garela esan lezakete, baina likenari atxikiak segituko dugu oraingoan. Bada, harritu zaitezte! (txan!), onddoak algari azken honek bizitzeko ezinbestekoa duen hezetasuna eskaintzen dio, eta algak elikagaia ematen dio (karbonoa) onddoari, zeren algak... (poliki-poliki gora egiten duten danborren burrunba eta ... Txan!); alga fotosintesia egiteko kapaza da!!! (Txaloak). Eta onddoa ez, aizue. «Eta karbono puto hori zertarako? –esango duzue». Bada, bizitza karbonoaren gainean eraikitzen delako, aizue, edo, beste modu batez esanda, bizitza deitzen dugun hori, gauzen harreman berexi hori, karbonoaren gainean eraikitzen den zera bat delako. Bada... oinarri guztiguztia alga bezalako oinarri umiletatik dator, landareetatik, beraiek sortzen baitute karbonoa, fotosintesiaren bidez, eta hitzak bete-betean adierazten duen moduan... (poliki-poliki gora egiten duten danborren burrunba eta ... Txan!); fotoiak harrapatzeko gai dira!!! (Txaloak). Gu ez bezala, partikulen munduan bizi dira, non energia eta masa eta abiadura gauza bera diren!!! (Txan! Txan! Txan!), eta ez dute oilaskoa jaten edo txitxarroa, argiaren fotoiak baizik!!! Onda bat!!! Frekuentzia bat!!! Abiadura bat!!! (Txan porropopopopo txaaaannnnnn!!!); argiaren abiaduraz elikatzen dira eta elikatzen gaituzte!!! Eta harresietan begiratu gero, hortxe daude likenak, edonondik. Partikulen ozeano erraldoia eraldatzen.

Izarrari, gure izarrari, gu ez bezala, estuki lotuak. Likenak, aizue, gauza txikitxo horiek, basotxo mikroskopiko eder horiek ●

Kirol harrobiaren urteurena

Bere 50. urteurrenaren karietara, egunotan ospatzen ari diren jaietako protagonista da aurten Txantreako Kirol Kultur Elkarteak.

Joan den asteartean abiatu ziren Txantreako jaiak, eta bertako Kirol Kultur Elkarteari egokitu zitzaion suziria botatzea. Ezin zuen bertze inork jaurti jaiak iragartzen dituen etxafuegoa; izan ere, Txantrea Kirol Kultur Elkarteak 50 urte bete ditu aurten, eta herriko harrobiaren bihotza izaki, berak izan behar zuen ohore hori. Jaiak asteburu honetan bukatuko dira, baina kirol elkarteak urte osorako ekitaldiak prestatu ditu.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Euskaldunen Biltokia Txantreako Ezkaba plazan dago. Jaietan irekia egonen da bertako ostata.

'Euskaldunen Biltokia'

Txantreako euskaldunek biltzeko toki bat izanen dute hemendik aitzina: Euskaldunen Biltokia. Egoitza ekaina aldean inauguratuko badute ere, dagoeneko ostatuaren ateak ireki dituzte Txantreako jaietan. Orotara 50 bazkide ditu bere baitan, eta euskararen erabilera bultzatzea da bere xede nagusia. «Txantrean euskaldunak elkartzeko toki baten beharra sumatu genuen, eta duela urtebete hasi ginen lanean. Egoitza aurkitu eta joan den urtarrean sortu ginen elkarte gisa», erran digu elkarteako presidente Fernando Reyk.

Euskaldunen Biltokia ez da elkarte soil bat izanen. Ildo horretan, euskarazko ekitaldiak sustatzeko asmoa dago, hilabetez hilabete egitarau oparoa, alegia. «Sarritan euskaldunak sortzeko lanetan jartzen dugu indarra, baina gero gure hizkuntzaren erabilera bermatu beharra dago, eta horretarako sortu gara, nolabait euskaldunen eredu bat izateko», gaineratu digu Reyk.

1952. urteko abuztuaren 7an sortu zen Txantreako Kirol Kultur Elkarteak, Iruñeko auzoa sortu eta bi urtera. 1950. urteko martxoaren 19an paratu zuten aurreneko etxearen lehen harria, eta handik bi urtera Franco etorri zen auzoa inauguratzera. Hain zuzen ere, Francisco Franco Patronatuak eman zuen «halabeharrez kirola egiteko soilik» erabili behar zen lur saila. Orduantxe, eta herriko aurreneko biztanleen ekimenez, futbol taldea sortu zen, eta jarraian, kirol elkarteak. Orduan, *Union Deportiva Hogar Txantrea* izena hartu zuen elkarteak. Hamalau pertsonaren artean sortu zen elkarteak, baina, pixkanaka-pixkanaka, zabaltzen joan zen kideen kopurua.

Futbolaren babesean, bertzelako kirolak sortu ziren: atletismoa, patinajea, eskubaloia, txirrindularitza... Eta egun, Txantreako Kirol Kultur Elkartearen jardueren zerrenda amagabea da. Arestian aipatutakoaz gain, igeriketa, hockeya, saskibaloia, gimnasia erritmikoa, taekwondo eta herri kirolak... Beste zenbait kirol bidean gelditu dira; boxeoa eta halterofilia, erraterako. Baina ibilbide bikaina izan du Txantreako kirol harrobiaren bihotza den elkarteak. Egun, 4.500 kide ditu, eta etorkizunerako asmoak izugarriak dira.

Ibilbide zaila, auzo berezian

Nekazaritza munduan gosea jasaten ari zirenak hartzearen sortu zen Txantrea. Nekazari munduko jende aunitzek hirietara jo zuen 50eko hamarkadan lan eta etxe bila. Iruñean, 200 bat etxebizitza eraikitze plano abiatu zuten iparreko lursailean, eta gero etxejabe izango zirenek beraiak

eraiki zituzten etxeak. Egoera ekonomikoa, beraz, ez zen erraza. «Txantrea auzo berezia da, ekonomijokoi zailtasun latzak izan dituen jendea bizi izan da gurean, eta horrek eragin zuzena izan du kirol elkartearen bilakaeran. Ibilbidea ez da batere erraza izan; hala ere, gure kideen kemena eta erantzuna izugarria izan da beti», azaldu digu elkarteako kudeatzaile Joseba Paternainek.

Ildo horretan, Txantrea Kirol Kultur Elkarteak egun duen larrina kirol instalakuntzen urritasuna da. «Gure kirol talde aunitzek bertze elkarte batzuetara joan behar izaten dute entrenatzera, guk ez baitugu zelai aski denak entrenatzeko», dio

te igaro dira bi egun artean. Ineanean, Felipe Iruñeaz Lizarrondo auzoarteko instalakuntzailea, 1969. urtean. Ezkerrean, Txantreako kirol elkartearen kudeatzaile Larrea kudeatzailea.

● EGUNKARIA

Paternainek. Ildo horretan, kiroldegi bat eraikitze plano abiatu dute, eta bertan patinodromoa, frontoia, tenis zelaiak eta elkartearen alor soziala jasotzeko eraikina biltzeko asmoa dute. «Gurea ez da kirol elkarte soil bat; bertzelako alorretan ere hainbat ekimen egiten saiatzen gara. Nola-bait, sustapen lana egiten dugu. Horregatik, eta elkartearen barne bizitza indartzeko, behar-beharrezkoa dugu gure instalakuntzak handitzea», gaineratzen du kudeatzaileak.

Egitarau zabal eta oparoa

Txantreako Kirol Kultur Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak aste honetan

bertan abiatu dira, Txantreako jaiekin batera. Elkarteak bota du etxafuegoa, bi arrazoi-rengatik: batetik, urrezko ezteietan delako, eta bertetik, elkarteak berak bultzaturiko kultur ekintzek sortu zituztelako, 1965. urtean, auzoko aurreneko jaiak.

Urteurrenaren ospakizunak, alta, ez dira egunotan ospatzen ari diren jaiekin amaituko. Ekainaren 29an Elkarteako Kidearen Eguna ospatuko dute, eta abuztuaren 50. Urteurrenaren Eguna. Aurrerantzean ere, erakusketak, hitzaldiak eta omenaldiak egingen dituzte. Elkartearen historia bilduko duen liburua ere prestatzen ari dira.

→ Kristina Berasain



Txantreako Jaiak

Ostirala

- 19:00 → T'Omblijo taldeak *Caninando* antzeziana taularatuko du, Euskararen plazan.
- 20:00 → Magia ikuskizuna, Pedro III.a magoaren eskutik, Federico Soto pasealekuan.
- 23:00 → Dantzaldia, Iris eta Jarauta 69 taldeen musikarekin.

Larunbata

- 10:00 → Kayak, Magdalena zubian, eta rokodromoa, Ezkaba mendian.
- 12:00 → Erraldoi eta kilikien kalejira, herrian barna.
- 13:30 → Laia lasterketa, Gares eta Artaxonako gazteen eskutik.
- 14:30 → Herri bazkaria.
- 18:30 → Kollins clown taldearen antzerki emanaldia umeentzat.
- 19:15 → Euskal Herriko Joaldunen I.go topaketa, Ezkaba plazan.

Igandea

- 11:30 → Txantrea eta Oberena taldeen arteko futbol partida, UDC futbol zelaietan.
- 12:00 → Ortzadar dantza taldearen emanaldia, Piramideen plazan.
- 14:30 → Ajoarriero eta paella lehiaketa, Sabicas plazan.
- 18:00 → Els Pepsikolen taldearen ikuskizuna: *Maremango* lana, Soto pasealekuan.
- 20:30 → Gladis Mercado y Los Charros mariachi internacional taldearen kontzertua.

HARPEA TABERNA
Bazkari eta afari bereziak 17€
Harpea Taberna, 2-3 TXANTREA
Tel.: 948 14 60 30

YOSELEN KAFETEGIA
Era askotako pintxoak, bokatak eta afariak
Zorionak!!!
Ezkabako plaza - TXANTREA

EZKABA TABERNA
Ondo pasa jaietan!
HAMAIKETAKOAK - BAZKARIAK AFARIAK
EZKABA PLAZAN
TEL. 948 36 25 93

TABERNA GAZTELU ERRETEGIA
Berezitasuna: haragi erre
ZORIONAK
Federico Soto pasealekua, 3 - TXANTREA
Tel.: 948 12 09 99 - 619 74 43 15
Faxa: 948 13 57 78

ZAZPI OKINDEGIA PANADERIA
Miravalles, 9 TXANTREA
AKELARRE Musika zuzenean
Ongi pasa Txantreako jaietan
Lesaka, 5 - Tel.: 948 13 42 05

KORIMATLO TABERNA
BOKATA IRAULTZAILEAK JAI AURREA ERAMATEKO
Lesaka kalea, 5 TXANTREA
Jai zoriontsuak!

URTEURRENA 1952-2002 ANIVERSARIO
50
UNION DEPORTIVA CULTURAL CHANTREA
TXANTREA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

ARMONIA TXANTREANA 2002
JAI EGITARAU
Apirilak 30 asteartea 00,30etan Arrapo y los del monte
Maiatzak 3 ostirala 00,30etan Jarauta 69 rekin dantzaldia
Maiatzak 4 larunbata 13,30etan Trikitrixak Felix enparantzan
19,00etan Kalejira Peñako txarangarekin
00,30etan Iris taldea rekin dantzaldia
Maiatzak 5 igandea 18,00etan BLUES MONKEY'S BAND
ostirala, 2002ko maiatzaren 3a



Herriaren opioa

Eukaristia. Monte Carloko jabe Samuelek eta biok Amaia kaleko udal azokako postu berean erosten ditugu antxoaz bereriko olibak. Larunbat goizetan maiz egiten dugu bat saltokian bertan. Mariak, postuaren jabeak, 60 urte inguruko anatomia oparoko andre jatorrak, bioi berdin prestatzen dizkigu. Lehenik eta behin, koilara zulodun batez lata erraldoitik atera eta plastiko zuri garden samarreko poltsa txikian sartzen ditu. Gero, duela pare bat urte erosi eta oraindik ere oso ongi menderatzen ez duen pisu elektronikoa pisatzen ditu —tronpatzen den aldiro «*Virgen purissima!*» txilio egiten du, eta niñi, batek daki zer dela-eta, **Andres Basterra** etortzen zait gogora—. Jarraian, ezinezkoa ekinez egiten du: zuloz josiriko koilararekin salda sartzen du poltsan, eskumuturreko hiru kolpe idorrez. Azkenik, gero etxean plastikoa hautsi gabe askatzerik ez dagoen lokarria egiten dio poltsatxoari.

Fedea. Umetan, Xabierko San Franzisko elizako apaizari miresmen begirada txundituaz geratzen nintzaion so ostiak sagaritzen zituen bitartean, esku artean Jesu Kristoren gorputza zerabilela eta ez zerabilela. Aspaldidanik, eta bere-



Silvio Rodriguez.



Fernando Sebastian.

ziki eliza katolikoa krisi larrian dabilen honetan —Estatu Batuetan apaiz pederastak, Nafarroan **Fernando Sebastian** apezpiku...—, Zabalguneke azokako oliba saltzailearena da nigan miresmen begirada berriz pitz dezakeen eukaristia bakarra. Seguru asko egun Larra-soañako beteki itxurako Mariaren eskuak lanean ikusteak eragiten didan zirrara da nire sentipenik mistikoena. Malenkoniatsuena, bederen, bada. Izan ere, olibak aitak oso noizean behin, egun

handietan baino ez, Reta tabernan, bermutean ateratzen zigun entsalada inperial pintxoarekin lotzen ditut —garai haietan entsalada errusiarrari ezin zitzaion errusiar deitu—. Edo geroago, nerabezaroan, Caldereria kaleko Diez tabernan merenduarekin eta botila ardoarekin ateratzen zizkiguten oliba hezur-dunekin. Edo, jada gaztetan, eta, **Turrillas** Maisua zenak esanen lukeen moduan plazako izkinako farola, Mendialdeko haritza eta Erriberako ardoa

tetzen didate aho sabaia. Garraztasun nabariagoa uzten didate eztarrian. Hau guztia pentsatu dut Monte Carloko barran eserita, kaña edaten, olibak jaten, periodikoan. Batasuneko kideen atxiloteten inguruko albistea irakurri eta gero. Gorritasunak aspaldian giblean utzita, grina iraultzaileak aspaldian muserako zaletasun bilakatuta, nahiago izan dut olibetan pentsatu, entsala inperialaren kiratsa darion albisteari buelta gehiegi ematea baino. Zer gerta ere.

bezain gorriak ginelarik, **Silvio Rodriguez**ek bere kanta zoragarri batean zerabilen oliben eta emakumezkoen hankartekoaren inguruko metafora hura —to marka melomanoa: Turrillas eta Rodriguez esaldi bakarrean lotuta—.

Erabilpen praktiko. Kontua da larunbat goizero mistikotasun osoz Amaia kaleko oliba saltzailearen posturainoko erromesaldia egiten badut ere, Samuel toki berean eta lata bereko olibak erosten ikusten badut ere, Samuelek gero tabernan ezer berezirik egiten ez diela hamaika aldiz zin egin badit ere, etxeko olibak eta Monte Carlokoak ez direla berdinak. Monte Carlokoak bestelako samurtasunez txikitzen zaizkit hortzen artean. Kresal zapore indartsuagoz betetzen didate aho sabaia.



panpilonia zirkus

Salsipuedesko atezaina

«Ze, etxe bila habil, ezta? Ba, joan hadi katedral aldera, han ibiltzen baituk moja hoietako bat, Salsipuedesko komentukoa, eta galdeiook hari». Josu Nabarrerian gora joan, katedrala eskuinean utzi, San Jose plazan sartu eta iritsi zen hiriko karririk bitxienetakora, izenetik beretik hasita, Salsipuedes karrikara, alegia. Sarrera eta ateara bakarreko kale txikia eta meharra da. Josuk karrika akaberan moja bat ikusi zuen, komentuko atariaren ondoko aulkian jarrita, hots, San Joseren karmeldar oinutsen komentuko atezaina, Sor Mercedes, alegia.

Karmeldarrak klausurako mojak dira, denak Sor Mercedes izan ezik, jakina. Atari aldea zaintzeaz gain, mandatuak ere egiten ditu Mercaderes, Curia eta

Caldereriako dendetan. Arrautzak, ordea, komentu barnean dauzkate, oilategian. Salgai daude, gainera, betiko erostunentzat. Dirua mahai biribil biragarri batean paratu behar da. Mahai erdia, paretaz alde batean dago, eta, bertze erdia, aldiz, komentuko klausuran. Orduan, mahaia birarazi, dirua leiho txiki batetik desagertu eta bertze leiho txikitik dozena bat arrautza ateratzen da.

Josuk etxeaz galdetu eta Sor Mercedesek erran zion horri buruz ama nagusiarekin solas egin behar zuela eta gela erdi ilun bateraino eraman zuen. Bat-batean, ahots bat mintzatu zitzaion leiho barrotedunaz bertzaldetik: «Etxe bila omen zabil-tza... Guk badugu bat, errentan hartze-koa...». Uste bezain zaharra ez zen ama

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Salsipuedes karrikako komentua.

Enrike Diez de Ultzurrun

mendiak». Azpian, Fernando Sebastianen letxuak eta lekak, artzapezpiku-jauregiaren gibleko baratzeetan. «Orduan, hartuz gero, badakizu, eskailerak garbitu eta, hilean behin, Ermandadeko junta-koek bilera dutenean, txistor puska batzuk edo ajoarriero pixka bat atera beharko diezu, ardoarekin batera».

nagusiak honetaz eta hartaz galdetu zion, ikusteko Josu hura fidatzeko gizasemea ote zen eta hiriko abizenik zuen ala ez. «Zoaz, Ahizpa Mercedesek erakutsiko dizu».


Iritsi ziren, bada, Arreba Mercedes eta Josu Dormitaleriako 13ra. «Hau?», «Bai, hauxe da». Etxeko atari aldean sartuta, zur eta lur zegoen. «Bista ederra da, gero. Begira, harresiak, katedrala, Txandrea,

Josu eskaileretako manikiel begira zegoen. «Bai, Casa Unzukoek debalde eman zizkiguten», erran zuen Arreba Mercedesek. Erromatarrez jantzitako manikiak ziren haiek, etxebizitza hori dagoelako ortzirale santuko prozesioa ateratzen duen Jaunaren Pasioaren Ermandadearen gainean. Josuk ez zuen bere burua ikusten erromatar haiei hautsa kentzen, eta, azkenean, ez zuen etxebizitza hartu. Orain, ordea, bada maizterrik.

Ufestuek taldea

MUSIKARIAK

«Baztani bizia eman nahi diogu, aspaldi ez delako talderik hemen»



JON ABRIL

DENA AGUDOEGI JOAN DELAKO sentsazioa dute Xabik, Josebak, Etxamendi eta Ibanek. Diskoa eta webgunea dute, eta kontzertuak eman nahi dituzte Euskal Herri osoan.

■ Musikagintzan lehenbiziko esperientzia duzue gehienek. Nola sortu zen Ufestuek?

Laurek gustu berdinak ditugu. Josebak, Xabik eta nik [Iban ari da solasean] beti izan dugu gogo-goa talde bat egiteko. Orain dela urte bat hartu genituen instrumentuak, eta ongi pasatzeko gogoz elkartzen hasi ginen. Forma hartzen hasi zen, eta joan zen maiatzaren ordu anitz sartzen hasi ginen. Ekain-uztail aldean Etxamendi sartu zen; hau profesionala da, bertze talde batzuetan ibilia delako. Nahiko serio hartu genuen, eta hortik zerbait ateratzen ahal zela ikusi genuen.

■ Sumatzen da baztandar puntua, ezta?

Ukitu hori beti gelditzen da. Gure gustua 80ko hamarkadako talde horien inguruan biltzen da: La Polla, Ramones, Sex Pistols... eta Pottoka, dudarik gabe. Hortik heldu zaigu ukitu hori.

■ Baztanen sortu zen Nekazalpunk besta joan den urtean. Izen hori ere paratzen ahal zaio zuen musikari, beharbada?

Bai. Laurak hemengoak izanda, Pottokaren erreferentzia dugu. Nekazari musika da, finean.

■ Dena agudo joan da zuen sorreratik, baina zein helburu duzue talde bezala?

Baztani bizia eman nahi diogu, aspaldian ez dagoelako talderik hemen. Guri ongi pasatzea gustatzen zaigu. Ez dugu helbururik, kontzertuak ematea, bakarrik. Abadiñora jotzera joateko deitu digute,

eta hori bera guretzat anitz da.

■ Eta aitzinera begira, zer egin nahi du Ufestuek?

Bide berean segitu nahi dugu. Bi tabernariak gara, eta horrek ere mugatzen gaitu kontzertuetarako eta. Euskal Herrian zehar jo nahi dugu. Umil-umil, kontzertuz kontzertu aritu nahi dugu. Kantu berriak egiten ari gara. Talde sentsazioa badugu jadanik. Oraindik ikasten ari gara.

■ Zuek ekoitzi duzue zuen lehenbiziko diskoa, inguruko jendearekin, Baztango jendearekin... Nola izan da grabaketa?

Disko bat grabatzea pentsaezina

zen orain dela urte bat. Gustatzen ahal zaizu musika mota hori edo ez, baina soinuaren kalitatea handia da. Eskerrak eman behar ditugu hau egiten lagundu digutenei. Horrelako taldeak ezin gara disketxeetara joan. Ez digute kasurik egiten, ez dute arriskatzten. Guretzat, autoekoizpena aise hobeia izan da.

■ Zuzenekoan guti ibilia zarete oraindik, baina nolako esperientzia izan da?

Hagitz ona. Zuzenekoan jendearekin duzun harreman hori hagitz polita da. Guk, gainera, toki tikietan jotzen dugu, eta harreman hori gehiago sumatzen da.

■ Bertsozale Elkartearen Hitzaz Dantzan diskoan ere parte hartu duzue. Izen handiko taldeak ere izan dira tartean.

Kristoren aukera sortu zitzaigun, eta esperientzia ere hagitz ona. Bertze taldeekin harremanik ez dugu izan, baina ekainean Iruñean talde guztiek batera egingen dugu kontzertu bat, eta hor bertze taldeekin egoteko aukera izanen dugu.

■ Zein kezka islatzen ditu Ufestuek taldeak bere kantuetan?

Letrak ez ditugu guk idazten, ez gara sobera trebeak. Bakarra egi-

Lagunarteko josteta baten gisara hasi zena disko bihurtu da urtebetean. Erratzutik punk gogorraren hotsak zabaltzen dituzte, ongi pasatzeko helburua baino ez duten lau lagunek: Ufestuek.

soslaia

Joseba Etxandi bateria jolea, Xabi Ospital gitarra eta ahotsarekin, Iban Iparragirre baxu jolea eta Jose Inazio Etxamendi gitarrista dira Ufestuek. Hiru lehenak erratzuarrak dira, eta Elizondokoa laugarrena.

Gizarte honetako ustelkeria salatu nahi dute. Ongi pasatzea, eta ahalik eta kontzertu gehien ematea dute helburu.

Zortzi kantu motzez osatutako diskoa argitaratu dute, eurek ekoitzia, Erratzuko Kultur Elkartearen, Xorroxin Irratiaren eta Baztangoza Ikusentzunezkoen laguntzarekin. Webgunea ere badute, euren musika eta irudiak erakusten dituen: <http://es.geocities.com/ufestuek>.

Talde anitz daude, eta hagitz onak. Baina talde anitz saiatzen dira Etsaiak, Su ta gar eta horrelakoak imitatzen, musika estilo hori. Bi disko horiek hartzen dituzu eta originalarekin gelditzen zara. Hortaz, norberari gustatzen zaiona egitea komeni da, ez bertzeak bezalakoak izaten saiatzea, komertzialagoa izateko.

→ Jon Abril

Iruñeko komunikabide batek ordezkapen bat egiteko administrari bat behar du,

Eskatzen da:

- Euskara ahoz eta idatziz jarduteko maila.
- Informatika arloa menperatzea: Windows 98, Word, Acces eta Excel.
- Kontabilitatea.
- Eskarmentua antzeko lanetan.

Eskeintzen da:

- Lan kontratu laborala gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa.

Interesatuak Curriculum zehatza bidali argazki berri batekin Maiatzaren 6a baino lehen, helbide honetara:

IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK, S.A.
Iratxe Monastegia, 45-ek eskailera, 13.ek
31011 IRUÑEA



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Garcesen besoa

Jesus Garces du izena. 29 urteko iruinsema da. Pasa den astean Landabengo ADI Metalparts lantegian lanean ari zelarik, makina batek besoa suntsitu zion. Ospitalera eramane eta besoa moztu behar izan zioten. Igandeko egunkariak zekarren albistea. «Gazte batek besoa galdu du lan-istripu batean», zioen tituluak, eta argazkian gaztea Bideko Ama ospitaleko gela batean, besobakar.

Horrelakoetan ohikoena honela laburbil daiteke: langileen protesta eta enpresako buruen aitzakiak. Pasa den asteko istripuan, ordea, langileek ez ezik, gerenteak ere makina behar bezala erabiliko balitz istripurik ez zela gertatuko onartzen zuen. Alegia: makina mar txan jartzeko besoak erabili beharrean, pedal baten bidez egitera behartzen dute langilea, horrela eginez produzioa handiagoa delako. «Badakigu ez dugula makina behar bezala erabiltzen. Sistema hau ekoizpen handiagoa ematen digulako erabiltzen dugu, baina langileek badakite horren berri, badakite sistema arriskutsua dela». Langileak, berriz, sistema ergel hori erabiltzea arriskutsua zela jakinagatik, berak lan egin nahi zuela zioen.

Langilea ospitaleko ohean zauriak sendatzen ari zen bitartean, Iruñean bertze errekor bat lortu genuen: metro karratuko polizien kopururik handiena. Europako politiko batzuek energia berriak aztertzen ari ziren. Bi albisteak periodiku berean ikusteak errazago ikusarazten digu lotura. Bai, tamalez, lekutan dago duela 50 bat urte batzuek amestu zuten Europa. Batzen gaituena ez da elkartasuna, mundu berria eraikitze gogoa eta alukeria horiek euroa, amerikarrekiko menpekotasun osoa eta gizatasun falta baizik. Ekoizpen handiena preziorik merkeena pagatuz. Azken finean, gizaratean batere emoziorik sortu ez duen batasunaren bultzatzaileek badakite beso bat edo langile baten bizitza huskeria direla eraiki nahi duten Europan. UPNkoak euskaldunon aurka nola, horrelaxe harropuzten ari dira ekoizpena sinesmen bakarra dutenak. Horregatik, aitortu egiten dute: «Makina gaizki erabiltzen dugu gehiago irabazteko. Baina langileak bazekien sistema arriskutsua zela». Esker mila anitz, jaina, eta barkatu makina nire odolaz zikintzeagatik.

gure aukerak

JAIALDIAK

- **Aratzuri:** Euskararen Eguna bihar Oltzako zendean. Goizean haurrendako jolasak. Eguerdian herri bazkaria eta gero herri kirolak, musika eta dantzaldia.
- **Iruñea:** Aldezar elkartearen X. urteurrena ospatzeko, Nabarrera plazan, bertzeak bertze, txokolate jana eta dantzaldia.
- **Barañain:** Haizea Elkartearen Eguna. Dianak, kalejira, erakusketa, hitzaldia, dantzaldia eta trikitixa izanen da egun osoan.
- **Mendillorri:** Mendillorri II eta IV ikastolek Euskal Jaia ospatuko dute maiatzaren 9an eta 10ean, hurrenez hurren. Antzerkia, pailazoak, herri bazkaria eta herri kirolak egonen dira bi eguntan.

MUSIKA

- **Tafalla:** Curamaguey taldeak kontzertua emanen du gaur iluntzeko 23:30etatik aitzina, Informal tabernan.
- **Ororbía:** Doctor Deslai entzungai bihar 22:00etan Ororbian.
- **Burlata:** Bol taldearen kontzertua asteartean Black Rose tabernan iluntzeko 22:00etan.

DANTZA

- **Bera:** Belgradeko Lira dantza taldeak dantza emanaldia eskainiko du gaur 20:00etan Altxateko plazan. Eurria eginez gero, Kultur Etxean arituko dira.

BERTSOLARITZA

- **Makea:** Iparraldeko Bertsolari Gazteen III. Topaketak izanen dira bihar eta etzi Makeako Etxetton. Bertan arlo teorikoak eta praktikoak landuko dira, zenbait bertso, jolas, antzerki eta kirolen bidez.

ANTZERKIA

- **Beriain:** Peraltako La Trapera taldeak Dario Foren *Aquí no paga*

nadie emanen du gaur, 21:30ean, Kultur Etxean.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirik antolatutako Zinema Euskaraz zikloaren barruan, *Eki alde ekialde* gaur iluntzeko 20:30ean Golemetan.
- **Narbarte:** *Banpiro txikia* filma ikusten ahal da euskaraz gaur, iluntzeko 21:30ean, frontoian.
- **Etxarri-Aranatz:** *Mothman azken profetia* filma emanen dute udal zineman, gaur gaztelaniaz eta igandean euskaraz.
- **Bera:** Irango *Biziaren arbola* filma emanen dute ortzegunean Kultur Etxean, 20:30ean.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Zabalik da Urtxintxak antolatzen duen aisialdiko hezitzaileen ikastaro trinkoan izena emateko epea. Abuztuaren 26tik irailaren 30era egingen dute. Izena emateko, deitu 948-237574 telefonora. Lehen 20 lagunek, matrikularen erdia ordaintzeko, diru laguntza izanen dute.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Jose Mari Pastor *Artzai* margolariaren olio eta akuarela lanak Carlos Zirizaren galerian (Berria, 123) egonen dira maia-


tzaren 18a arte, asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

- **Iruñea:** Joseba Zabalak Guatemalako zabortegean eginiko argazkiak paratuak ditu Zabaldiko teterian, maiatzaren 6a arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Zabaldik, *Mugak Zabalitzen* proiektuaren barruan, Afrikako Kultur Astea antolatu du datorren asterako. Astelehenean erakusketa zabalduko dute. Hitzaldiak izanen dira astearte eta asteazkenean, eta ostiralean jaialdia egingen da. Larunbatean, berriz, haurrentzako joko afrikarrak eta antzerkia.

Asteko erakusketa



Gregorio Paton

Non: Molmar galerian. Curia karrika, 18.a

Noiz arte: Maiatzaren 8a arte.

Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera 11:30etik 13:30era goizez, eta 18:30etik 20:30era arratsaldez. Larunbatetan soilik goizez.